



GELA / AULA

Proiektzioa eta Hitzaldia

Argibel Euba Ugarte

BASKER

1960ko hamarkadako
euskal kulturari buruzko
suediar dokumentalak

07

Apirila
Abril

18:00

BASKER

1963ko urtarrilean eta otsailean, Dan Grenholm eta Lennart Olson erreportariak Euskal Herria bisitatu zuten hainbat astetan zehar, eta euskal kulturari eta folkloeari buruzko bi laburmetraia dokumental etnografikotarako filmazioa egin zuten. *Basker* eta *Bonde i baskerland* filmak Sveriges Radio TV suediar telebista publikoan eman ziren urte bereko udan.

Ezustean topatutako ikus-entzunezko dokumentu bitxi eta guretzat ineditu horiek aurkezten ditu monografia honek, eta horien inguruko azterketa orokorra eskaintzen du. Eszena nagusien deskribapen zehatzak eta identifikazioak osatzen dute lanaren oinarria, eta egileen biografia txundigarriak nahiz Euskal Herrira egin zuten espedizioaren aurrekariak eta xehetasunak aztertzen dira ondoren. Film bien ezaugarri formalen eta edukien analisiak Grenholmen eta Olsonen hurbilketa, aurkeztutako elementu askoren izaera aitzindaria eta egileek haien lanen bitartez eskaini zuten euskaldunen irudi berezia ulertzen laguntzen digu. Azkenik, pelikulen harreraren azterketa eta kontestualizazioa aintzat harturik, horien garratzi historiko eta esangura kulturala balioesten dira.

ARGIBEL EUBA UGARTE (Galdakao, 1979)

Antropologian (2001) eta Artearen Historian (2003) lizentziaduna, Euskal Herriko Unibertsitatean. Etnomusikologian Masterra (2004), Goldsmiths College (Londres).
Gaur egun, txalapartaren inguruko doktore-tesia bukatzen.
Ikertzailea, Bigarren hezkuntzako irakaslea, eta musikaria.

BASKER

En enero y febrero de 1963, Dan Grenholm y Lennart Olson visitaron el País Vasco durante varias semanas, realizando el rodaje para *Basker* y *Bonde i Baskerland*: dos cortometrajes documentales etnográficos sobre cultura y folklora vascos que se emitieron en la Sveriges Radie TV (ente de televisión pública sueca) en verano de ese mismo año.

Esta monografía presenta estos curiosos documentos audiovisuales –inéditos en el País Vasco y hallados de manera fortuita – y ofrece un estudio global acerca de los mismos. La detallada descripción e identificación de sus principales escenas constituye su punto de partida, y a esta sigue un apartado dedicado a las apasionantes biografías de sus autores, así como la reconstrucción de los antecedentes y los pormenores de su expedición al País Vasco. El análisis de los rasgos formales y los contenidos de las dos películas contribuye a comprender el acercamiento de Grenholm y Olson, el carácter pionero de muchos de los elementos representados, y la peculiar imagen de los vascos que los autores proyectaron a través de su trabajo. Por último, partiendo de estudio de la recepción de las películas y su contextualización, se realiza una valoración de su importancia histórica y su significación cultural.

ARGIBEL EUBA UGARTE (Galdakao, 1979)

Lizeciado en Antropología (2001) e Historia del Arte (2003) lizentziaduna, Universidad del País Vasco.

Master en Etnomusikologia (2004), Goldsmiths College (Londres).

Actualmente, terminando la tesis doctoral sobre la txalaparta.

Investigador, profesor de secundaria y músico.

AULA

Aula es un programa de difusión cultural promovido por el Photomuseum y patrocinado por el Ayuntamiento de Zarautz. Se divide en cuatro bloques temáticos: Actualidad, Cinematografía, Historia y Literatura.



ZARAUZKO UDALA

GELA

Gela Photomuseum-ek sustatu eta Zarauzko Udalak babestutako kulturaren difusiorako programa bat da.

Lau alor tematikoetan banatzen da:
Gaur eguneko gaiak, Zinematografia, Historia eta Literatura.



Photomuseum